# getxo berria

Azken lau urteak,

urte ilunak izan dira.

Hau aldatzera doa,

Ezker Abertzalea erakundeetara itzuliko da!

# LAU URTE ILUN:

## UDALETXE ANTIDEMOKRATIKOA

- Herritarren parte bat baztertua izan da.
- EAJ-k, EA-k y Ezker Batuak getxotarren %48aren botoekin gobernatu dute.
- Ezker Batuak Getxo Biziari ostutako zinegotzi postuak gehiengo faltsua eman die.



# LAU URTE ILUN:

## ESKUMAREN GOBERNUA

- Getxo Biziari zinegotzia ostuta, Ezker Batuak EAJ-EA koalizioak gehiengoa izateko behar zuen babesa eman dio eskumako politikari.
- Boterearen gerizpera biltzearren, politika hori justifikatzen eta bere planteamendu propioak irensten eman ditu azken lau urteak.
- Ezkerreko oposizioa egin, Pleno Aretoko publikoaren jarlekuetatik egin da, herritar soilen eta Getxo Biziaren eskutik.

# LAU URTE ILUN:

# UDAL TASAK GORA

- Getxotarrek Udalari tasa eta zergetan ordaintzen dioguna % 36 igo da azken bost urteetan.
- Epealdi honetan Kontsumorako Prezioen Indizea (KPI), soldatak eta pentsioak doitzeko erabiltzen dena, % 16 baino ez da igo.
- Tasen igoeraren aurka protesta handiak izan dira. 10.000 sinadura baino gehiago.

  - Zarama tasaren %86ko igoeraren aurka

  - Igerilekuetara sartzeko aparteko tasaren aurka.
- Baina Udalak entzungor egin die protesta horiei, beste zenbaiti bezala.

# LAU URTE ILUN:

## GASTU SOZIALAREN MURRIZKETA




- Tasa eta zergen igoera ez da gastu sozialera bideratu.
- Oinarrizko zerbitzu, babes sozial, hezkuntza, kultura, kirola eta osasunean gutxiago gastatuko da 2007an, 2004an baino.

## LAU URTE ILUN:

## GAZTERIA AKTIBOAREN JAZARPENA

- Jai ekitaldi eta herri bazkarien debekua:
  - Gazte Eguna Itzubaltzetan
  - Indabada Algortan,…
- Gaztetxeen desalojatze eta eraispena.
- Bitartekoen ukazioa sormena eta autogestioari.

# LAU URTE ILUN:

## ETXEBIZITZA

- Azken ekitaldietan urtero 1,2 milioi euro onartu dira etxebizitzan inbertitzeko. Baina zentimo bat bera ere ez da gastatu.
- 2007ko aurrekontuetan aukera izan zen 5 milioi gehiago inbertitzeko; baina Udal Gobernuak atzera bota zuen herritarren proposamena.

| URTEA | ONARTUA | GASTATUTA |
|---|---|---|
| 2004 | 1,2 milioi | 0 euro |
| 2005 | 1,2 mililoi | 0 euro |
| 2006 | 1,2 milioi | 0 euro |
| 2007 | 1,2 milioi | 0 euro |

# LAU URTE ILUN:

## ETXEBIZITZA

- Alokairu sozialeko eskaintzarik ez dago.
- Getxon 1.627 pertsonak eman du bere izena Etxebiden.
- Babes Ofizialeko 154 Etxebizitza eman dira bakarrik.
- Hutsik dagoen 2.592 etxebizitza dago Getxon.
- Irtenbideen falta ezkutatzearren, Andramarin 8.368 etxebizitza, hauetatik Babes Ofizialeko 4.500, eraikitzeko proiektua aurkeztu dute.

# LAU URTE ILUN:

## PROIEKTU SUNTSITZAILE ETA ANTISOZIALAK

- Andramari: Getxoko sorburu historikoaren, euskararen babeslekuaren eta paraje naturalaren erabateko suntsiketa ekarriko luke orain gobernuan dauden alderdien proiektuak.
- Portu Zaharra: Galdaretxeko lanek eta Erreilenorako Bainuetxe proiektuak gune historiko hau ezabatuko dute.
- Gune publikoen  pribatizatzea, espekulazioa eta porlanaren negozioa gure herriaren historia irensten ari dira.

# LAU URTE ILUN:
## HIRI HONDAKINEN ERRAUSTEA

- Hiri hondakinetarako aukerarik antiekologikoena hartu du Udalak : **errausketa**
  - Birziklatzea bezalako alternatibak baztertuz
  - Hondakin toxiko berriak sortuz.
- Honen ondorioz gainera zarama tasaren % 86ko igoera ezarri digute.
- Guzti hau Ezker Batuaren botoekin, gai honetan bere printzipioak irentsi dituena.

# LAU URTE ILUN:
## GETXOREN DESPERTSONALIZAZIOA

- Kontsumozko kultur eredua dugu: Ekitaldi handiak kontsumitzen ditugu, baina ez dugu ezer berririk sortzen.
- Parte hartze  eta jende arteko harremanen kultur ereduak baztertu egiten dira.
  – Adibidez: 2006ko diru laguntzak



# ILUNTASUNEAN

# EREIN DUGU

- Lau urte gogor hauetan zehar Ezker Abertzaleak egin duen lanaren fruituak indartsu loratzen ari dira jadanik.

berria

getxo

Getxoko Abertzale Sozialistak

# HAU ALDATZERA DOA:
## Badator Udal berria!

- Maiatzaren 27an Ezker Abertzalea erakundeetara itzuliko da.
- Urte ilunen aroa bukatu da.
  - Bukatu da eskumaren nagusitasuna udal eta foru erakundeetan.
  - Aro berri bat hastera goaz, hala Getxon nola Euskal Herri osoan.

# HAU ALDATZERA DOA:
# Herri Programa

- **Euskara** (proposamen batzuk):
  - Euskararen Udal Ordenantzak ezarri.
  - Euskalduntze plangintza burutu.
  - Doan euskalduntzeko aukera bermatu.
  - Getxoko euskara moldea zaindu.
  - Aurrekontuen % 2 euskalduntzera bideratu.

getxo berria

# HAU ALDATZERA DOA:
# Herri Programa

**Eskubide zibil eta politikoak** (proposamen batzuk):

- Oinarrizko eskubide zibil eta politikoak bermatu, udalerri mailan.
- Herritarren parte hartzea sustatu:
  - Bileren ordutegia aldatu
  - Proposamenak aurkezteko aukera zabaldu
  - Herri galdeketak burutu (HAPO…)
- EHNAren erabilera sustatu

getxo berria

# HAU ALDATZERA DOA:
# Herri Programa

- **Politika feministarako** proposamen batzuk:
  - Berdintasunerako Saila Udal Gobernuan txertatu
  - Berdintasun Plan partehartzailea burutu
  - Berdintasun Kontseilua, erabakitzeko ahalmena duena
  - Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko politika eraginkorra

# HAU ALDATZERA DOA:
# Herri Programa

- **Gazte politikarako** proposamen batzuk :
  - Gazteria, herriko kolektibo gisa onartu
  - Autogestioa bultzatu
  - Gaztetxeak babestu eta lagundu
  - Etxebizitza plan zehatza gazteentzat
  - Lanaren prekarietateari aurre egiteko politikak

# HAU ALDATZERA DOA:
# Herri Programa

- **Etxebizitzarako** proposamen batzuk :
  - Herritar guztientzat etxebizitza duina ziurtatu
  - Herri mugimenduekin batera eskubidearen aldeko borroka ideologikoa garatu
  - Eraikita dagoen parkean eragin eta etxe hutsen erabilera bultzatu
  - Beharren justifikazio argirik gabe hiriaren hedapena eta eraikuntza mugatu
  - Lur zoru eta etxebizitzan inbertsio publikoa egin
  - Alokairu publiko sozialaren eskaintza indartsua garatu

getxo berria

# HAU ALDATZERA DOA:
# Herri Programa

**Inmigrazio politikarako** proposamen batzuk :

- Etorkinen eskubide guztien defentsa burutu, eskubide zibil eta politikoak barne
- Euskal Herriarekiko kontaktua garatu
- Etorkinei beren problematika kudeatzeko baliabideak eman
- Jatorrizko herriekiko harremana estutzeko politikak gauzatu

getxo berria

# HAU ALDATZERA DOA:
# Herri Programa

**Enplegua, formazioa eta merkataritzarako** proposamen batzuk:

- Behargintza gehiago bultzatu
- Denda txikien aldeko politika burutu
- Udalaren zerbitzuen munizipalizazioa
- ABLE-en erabilerari uko egin
- Emakume eta gazteen kontratazioa bultzatu
- Aurrekontuen % 3 formazio eta enplegu programetara bideratu

getxo berria

# HAU ALDATZERA DOA:
# Herri Programa

**Hezkuntzarako** proposamen batzuk :

- Hezkuntza Batzordea eratu, herria eta hezkuntza uztartzeko
- Haur eskola guztietan 0-3 zikloa eta D eredua bermatu
- Tokian tokiko curriculuma garatu

getxo berria

# HAU ALDATZERA DOA:
# Herri Programa

**Kulturarako** proposamen batzuk :

- Kultura Kontseilua sortu
- Kultur ondarea berreskuratzea: jaiak bultzatu, historia ezagutarazi, ondare materiala babestu
- Kultur Etxearen birbideratzea, kudeaketatik sustapenera
- Baztertutako sektoreen kultura lagundu
- Euskarazko tokiko telebistarekin hitzarmenak gauzatu
- Auzuneetako kultur etxeak hobeto hornitu

# HAU ALDATZERA DOA:
# Herri Programa

**Kirolerako** proposamen batzuk :

- Kirol Etxea sortu, praktika bultzatzeko
  - Instalazioak hobetu eta herritarrei hurbiltzeko
  - Formazio planak bideratu
  - Kirol liburutegia sortu
  - Euskal kirol tradizionalak bultzatu
- Osasunerako kirola: kirola pertsonen osasun eragile nagusietako bat bezala sustatu
- Deserdirapena: kirol instalakuntza txikiak zabaldu herrian zehar
- Igeritokien zerbitzua hobetu eta doako bihurtu

getxo berria

# HAU ALDATZERA DOA:
# Herri Programa

**Lurralde antolaketa** eta **inguru-giroa**:

- Beste lurralde antolaketarako plan bat (LZP) exijitu
- Natur guneak babestu eta zabaldu
- Nekazal eremuak gorde
- Zaborren birziklatzea bultzatu
- Energia berriztagarriak hedatu
- Herriko ondare historiko artistikoaren katastroa ireki
- Metroa guztiz lurperatu
- Lurpeko aparkaleku publikoak eraiki
- Garraio publikoa eta garraio alternatiboa hobetu

getxo berria

# HAU ALDATZERA DOA:
# Herri Programa

**Internazionalismorako** proposamen batzuk :

- Elkartasuna berdinen arteko harreman gisa eratu
- Lagundutako herrietako ordezkariekin harremanak bideratu
- Herri horiekiko senidetzeak bultzatu
- Israelekiko harreman oro eten
- Zapaldutako herrietara joaten diren brigadistei laguntza eman

getxo berria

# HAU ALDATZERA DOA!

berria

getxo

Getxoko Abertzale Sozialistak